

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 1568/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 23koa; honen bidez, «Esta historia la escribes tú/jarraitzeko prest? Orain zure txanda da» leloa duen Bizkaldatz-2020 XII. literatura-sariaren irabazleak hautatzeko epaimahaiko kideak izendatzen dira. Akats zuzenketa.

Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2020ko abuztuaren 3koa, 146 zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 1568/2020 FORU AGINDUA, uztailaren 23koa; honen bidez, «Esta historia la escribes tú/jarraitzeko prest? Orain zure txanda da» leloa duen Bizkaldatz-2020 XII. literatura-sariaren irabazleak hautatzeko epaimahaiko kideak izendatzen dira.

Ekainaren 23ko 60/2020 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak «Esta historia la escribes tú/jarraitzeko prest? Orain zure txanda da» leloa duen Bizkaldatz-2020 XII. literatura-sarirako deialdi publikoa onetsi du (2020ko uztailaren 6ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 127 zenbakia).

Dekretu arautzaile horren 11. oinarrian xedatutakoaren arabera, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Saileko foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da. Epaimahai kalifikatzaileak, sariak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

Hori dela eta, beheraxeago jasotzen dena xedatzen dut, aintzat harturik, batetik, goiko oinarri horrek xedatzen duena eta, bestetik, zer eskumen ematen dioten Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailaren titularrari honako arau hauek: Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/87 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikulua, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Euskara eta Kultura Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko araudia onartzen duen martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretua eta haiekin bat datozen gainerako xedapenak. Horretaz gainera, halaber hartu dira kontuan epaimahaikideen artean izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaldatz sariko epaimahaikideak izendatzea XII. literatura-saria Bizkaldatz 2020, «Esta historia la escribes tú/ jarraitzeko prest? orain zure txanda». Saria irabazi duten kontakizunei buruzko ebazpen-proposamena prestatuko dute kideok, eta, gero, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari igorriko diote, behin betiko ebazpena eman dezan. Hala, bada, honako kide hauek osatuko dute epaimahaia:

— Epaimahaiburua titularra:

- Andoni Iturbe Amorebieta jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusia.



- Ordezko epaimahaiburua:
 - Xabier Arauzo Uriarte jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.
- Euskarazko testuetarako epaimahaikideak:
 - Idoia Barrondo Etxebeste andrea, idazlea.
 - Marta Goikoetxea Nagore andrea, kazetaria.
 - David Tijero Osorio jauna, idazlea.
- Gaztelaniazko testuetarako epaimahaikideak:
 - Juan Infante Escudero jauna, idazlea.
 - Andoni Abenójar Martínez de Eulate jauna, idazlea.
 - Elena Fernández Alonso andrea, idazlea.
- Ordezko epaimahaikideak:
 - Begoña Elorrieta Puente andrea, idazlea.
 - Juanra Madariaga Abaitua jauna, idazlea.
- Idazkaria titularra, botorik gabe:
 - Amaia Pastor Pagalday andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.
- Ordezko idazkaria, botorik gabe:
 - Jaione Larrea Nájera andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.

Bigarrena: Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena: Agintzea foru agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. – Indarrean jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikatu eta biharamunean jarriko da indarrean foru agindu hau.

Bilbon, 2020ko uztailaren 23an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA